

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEAREN ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Behin betiko onestea Gasteizko Mariturri 6. sektoreko RU-01 lursailaren birpartzelazioa

Hau erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko uztailaren 8an egindako ohiko bilkuran:

Gaia: Behin betiko onestea Gasteizko Mariturri 6. sektoreko RU-01 lursailaren birpartzelazioa

Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia

2021eko azaroaren 5ean, Solbiky SLren ordezkariak eskrituraren kopia baimendua aurkeztu zuen Gasteizko Udaleko Erregistro Orokorrean. Eskrituraren kopia hori F. R. A. notarioaren aurrean eman zen 2021eko azaroaren 3an (protokolo-zenbakia: 1.849), eta Mariturri 6. sektoreko RU-01 lurzatia borondatez birpartzelatzeko proposamena jasotzen zen bertan, onartu eta administrazio-baimena lortzeko.

2022ko martxoaren 7an, Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuko arkitekto teknikoak txostena egin zuen, eta bertan adierazi zuen ez zegoela eragozpenik aurkeztutako birpartzelatze-proiektuaren administrazio-izapideei ekiteko.

Gerora, Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko apirilaren 8an egindako bilkuran, hasierako onestena eman zion Zabalganako Mariturri 6. sektoreko RU-01 lurzatia birpartzelatzeko proiektuari.

Aurreko paragrafoan adierazitako erabakia interesdunei jakinarazi zitzaizen hainbat lekutan argitaratuta: 2021eko apirilaren 25eko ALHAOn, 47. zk; Gasteizko udaleko iragarki-taulan eta 2022ko apirilaren 20ko El Correo (Arabako edizioa) eta Diario de Noticias de Alava egunkarietan. Birpartzelatze-proiektuari buruzko dokumentazioa hilabetez egon zen jendaurrean.

Jendaurreko aldia beste hilabetez luzatu zen, eragindako titularretan akats material bat antzeman baitzen 2022ko apirilaren 25eko ALHAOn (47.zk) argitaratutako testuan. Akats hori 2022ko maiatzaren 13ko ALHAOn (55. zk.) zuzendu zen. Jendaurreko aldiaren interesdunek ez dute alegaziorik aurkeztu.

Azkenik, Udalaren Topografia Atalak 2022ko ekainaren 28an egindako txostenaren arabera, jaso ditu Gasteizko Mariturri 6. sektoreko RU-01 lurzatia (11-892) birpartzelatzeko planoak, eta Lerrokadura, sestra, zuinketa akta eta obra amaierako planoei buruzko Udala Ordenantzan ezarritakoa betetzen dutela egiaztatu da.

Aplikatzekoa den Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 136.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, indibiso araubidea duten orubeak birpartzelatu egin ahal izango dira. Horretarako, gutxienez jabetza-kuotaren ehuneko 50 ordezkatzeko duen edozein jabekidek egin behar du eskaera, eta birpartzelatzeak ez du gaitutako orubearen eremua. Ildo beretik jotzen du 105/2008 Dekretuak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten presako neurriei buruzkoak, 40.2 artikuluan.

Birpartzelaziotzat ulertzen da poligono edo gauzatze-unitate bateko funtsak multzokatzea edo integratzea, zatiketa berria planaren arabera izan dadin, eta ondoriozko lursailak jatorrizko lursailen jabeei esleitzea, bakoitzaren eskubideen proportzioan, baita Udalari ere, dagokion zatian, indarrean dagoen Plan Orokorren 2.03.06 artikuluan azaltzen den bezala. Artikulu horrek birpartzelazioaren definizioa, xedea eta izapidetzea arautzen ditu kudeaketa tresnen barruan, eta plan orokor beraren 3.02.16 artikuluan.

Horretaz gain, Premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak –Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea garatzen du— 10 artikuluan xedatzen duenez, 2/2006 Legean aurreikusitako birpartzelazio-proiektuak Hirigintza Kudeaketari buruzko Araudia onesten duen abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuan adierazitakoaren arabera onetsiko dira, hurrengo artikuluetan aurreikusitako zehaztapenak gorabehera.

Gainera, aipatzekoa da abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretua –Hirigintza Kudeaketarako Araudia onesten duena–, zeinek xedatzen baititu arau orokorrak, betekizunak, edukia, prozedura orokorra eta laburtua eta horren eragina (III. titulua, birpartzelazioa, 71. artikulutik 130. artikulura bitartean).

Halaber, kontuan hartu behar da hirigintza izaerako egintzak Jabetzaren Erregistroan sartzeari buruz, uztailaren 24ko 1093/1997 Errege Dekretuak dioena.

Toki Jaurbidearen Oinarrien Legeak arautzen dituen 7/1985 Legearen 127.1.d) artikulua xedatzen duenez, Tokiko Gobernu Batzarrak du hirigintza-kudeaketarako tresnak kudeatzeko azken eskumena, eta horren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio Mariturri 6. sektoreko RU-01 lurzatiaren birpartzelazioa onartzeko erabakia hartzea.

Aurrekoa ikusirik, Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko zinegotzi ordezkariak hau proposatzen dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

1. Behin betiko onestea Gasteizko Mariturri 6. sektoreko RU-01 lurzatia birpartzelatzeko proiektua.
2. Erabaki honen ziurtapenaren hiru ale bidaltzeko agintzea, 1093/1997 Errege Dekretuaren 2.2 artikulua haritik, ondoren erregistroan inskribatu ahal izan dadin.
3. Erabaki hau argitaratzea eta interesdunei jakinaraztea. Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik. Nolanahi ere, alde aurretik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Horren ondoren berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da, bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, dagokion araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko uztailaren 19an

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE